



BOOKTEGI

ezjakitetik

Eukene
Lizeaga
Tamayo



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

EUKENE LIZEAGA TAMAYO

ezjakitetik

Zer gertatu zen $t=0$ istant aurrean?
Nondik datoz unibertsal-konstanteak,
eztanda handiaren aurretik,
gure unibertsoa sortuz,
denbora eta espazioari, hasiera eman ziotenak?

– Hans Küng.

Koru Zumalabe lagun onari eskerrak

HITZAURREA

Zer esan nahi du EZJAKITETIK? Zientzia eta erlijioaren arteko elkar hizketan misterio bat bizirik dirau. Denbora eta espazioan murgildu gintuen Big Bang edo eztanda handiaren aurretik, zer zegoen?. Edo zerk eragin zuen? Hau da EZJAKITETIKen hasiera.

Pierre Teilhard de Chardinen, eboluzio teoriaren irakurketa heterodoxo batetik jarraituz. Ama Lurraren hasiera, izate edo testigu baten ahotik, datorkigu. Izate honek, ezer ulertzetik, denborak emango dizkion ikasketak, bere kaxa deskribatzen jarraituko du.

Hortik aurrera, poema mota anitzen artean: Haiku batzuk han eta hemen, bi lerrotan, bata bestetik bereizirik, irakurri daitezken poemak, autorearen inspirazioa edatzen da. Erditzearen dialektika zabala, amatasun kontzeptu ireki bati lotuta. Bizitzaren gora- beherak. Gizakia, beste gizakiek gabe ezin litekeela izan. Bata bestearen beharra. Bakoitzaren barne eraikitzea, Guztiok, ikus ezina den oinarritzko sare edo hari, baten eboluzio barruan, gaudela. Sare horren oinarria Maitasuna da. Biguntasunean eserita ez dagoen Maitasuna.

ZERO

Irudikatu ezin dugun

bakarra

erantzun gabeko

galdera

galderen aurrekoa

dena... Zero. Hutsa...

Hasierako eztandaen aurretik

zer?...

Oraindik

gaur eta atzo

ezjakitean...

GATÓZ?

Ezjakitetik gatóz,...gatóz?!

Zergatik Gu? Garela ez badakigu?!

Hor dago ordea

hasieratik galdera

hitza ez zenetik galdera

jaio aurretik galdera...

Alteritate
genea, jaiotzetik
gure artean?

MAGMA

Beroa!

beroaren muinean

beroaren muineko gailurrean

arnasaren eza.

Gorri-beltz iluneko

eztanda itsuetan

ke pozoitsua

jaio naiaren saio etsia

zantzurik gabea.

Ez dakit

kaos honen muinean

asmo ezkuturik ahal dagoen

ala bada

zerk bideratzen du?...

Geroak emango digu izena

eta erantzuna.

Ez dakit nola

baina badakit

bertan nagoela...

NAGOELA

Zerk ezarri dit
osotasun sen hori
ezjakitetik?

LURRINA

Leia gogor baten
erdian nago
astinaldiak non nai
nondik jakin gabe.

Hemen
errudunik ez dagoen
leia bakarrean...

Magmaren hazian
lurrin jaio berri bat
irten nahian dabil.

Magmak
alderantziz
ez dio adin nagusitasuna
ezarri nahi
erasotzailea eta erasotua
zeintzuk diren jakin ezean
nahasia dabil.

Lehendabiziko aldiz
babestearen beharra
sentitu du
eraberean
azala gogortzearena ere.

BABESA

Babestu gara
otza eta gaua
kanpoan dira.

AZALA

Agian

ez genuke gure baitan

itxi behar

erasotzat hartzen duguna

laguntza baita

agian.

Gora eta behera nabil

geroak

ahaztu araziko ahal dio

lekuko izate honi?

Datozen indarrak

magmaren azal gogorra

zultatzen ari dira pixkana.

Handitu den lurrinak

ikaragarri presioa hartuta

sorlekitik atera naian

zirrikitutik bor-bor

kanporantz

ihes doa...

AZTARNA

Lurrinak duen
hizkuntza mota
aztarna bustia da.

AZAL GAHINEAN

Atera ditu magmak
bere atzapar zarpailak.
Azala miazten
doa
ahabitik
ihes egin dionaren bila.

Bere haserrean,
errauts suen
mantala daramala.

Jadanik bukatu da
bere aginpidea.

Kanpoan
berria den
zerbait dagoela
ulertu ezinean
sakelan daraman
errauts gorria
esku-bete zabaltzen doa.

Dialektika
Bat garen Osotasunarekin
Osotasunean lantzen doa...
Doa
Doan
Maitasunean

HARRIDURA

Nire egia-ostean
usain berriak dira
hoskirrien dardarak
egitura nahasi ezberdinak
bizona zabaltzeko bultzada ahaleginen
herdi herdian.

Hertzeak zabalduz eta zabalduz
doaz.

Begiak zer diren
jakingo banu
gure magma habiatik
harantzago
beste dirdira hauskorak
ikusiko nituzke.

Baliteke
geroan
Xabiet eta Mikelek
abestuko zuten
izarren hautsa
izatea?

Izarren dir-dir bakoitzean
bihotzerako
irri bat.

URA

Lasaitu den leian

barealdia.

Susmoz

beldurraz

eta ezjakiteaz

eraikia.

Adi dago lur azala

kanpoan sortu diren

multzo ilunak

zer diren jakin nahian.

Zer dira

multzo ilunek

jaregiten dituen

gardentasun leunak?

Hasieran beroak.

Beroa

eta besterik ez.

Beroak

ordea

nekez

bai moteldua

makurtze dantza

ikasten ari da...

Gardentasun leunaren
partaide izatera
narama egoerak.

Ni ere beldur naiz
lurraren azal gainean
erortzen naizenean
errauts
izarren auts
eta gardentasun leun
honen arteko nahasteak
zanpatu eta xurgatzen duen
zalu antzeko bat sortu baitu.

Jarraitu ditu goiak
su adar zaratatsu astinduan
jariora den
gardentasuna botatzen.

Oraingoan ez da leuna
mardultasun amorratu
ez ezaguna baizik.

Gure lur azal gogor eta beltza
zulatuz
menderatu duen
lautada mugikor gardenean
bihurtu zaigu.

Hau arintasuna!
Desagertu da zama
milaka behatz biziak
balitu antzera.

Arinean etzanda
barruko higidurak
laztantzen dit tarteka.

Isiltasun leun honetan
sagai-sagai dauden
forma berriak
esnatzen
eta luzatzen doaz
ni
heldu arte.

Orain bat naiz beraieken
eta pozik nago!
Bat bateko prozesio aske batek
ezagutzen ez dugun ertzerantz
leunki bideratzen gaitu.

Urrundik ikusten ditut
lehendabizi iritsi direnak
hain dira nahasiak
arrastaka doazela!

IZARRAK

Joan zaigu gaua
unibertsoan zehar
izarren bila.

HAIZEA

Ortziak atea irekitzerakoan
haizearen jabetasuna
galdu zuen.

Etxetik alde egin baitzuen
adiorik ez! esanez
norabide guztietatik
desagertu zen.

Heldu ezina den haizea

bihurrikerietan dabil beti
beldurgarria bihurtzen bada ere
baldin badabil haserre.

Naturari zirikatzeke
gona guztiak
altxatzeko
prest beti.

Lore baten dar-dar lotsatian.

Udazkeneko hosto dantzan.
Ekaitz gogorren jario eroan.

Oihartzunaren erdi-erdian.

Handituz hurbiltzen diren uhin parpaila itsuetan.

Menditako makalen erabateko makurtzean.

Basamortuko harearen matxinadan.

Itsaso eta mendien uluka soinuan.

Aurpegiak topo

egiten duten

laztan goxo

edo gelazko

zartada oldarretan...

Haizearen igaroa.

ARRANOA

Egoak zabalduta
ekaitzaren gainetik
doa arranoa.

DENBORAREN OROIMENA

Gure amak, magma izena zuen.

Denborak irakatsi dit

izenak jartzen.

Ez badakit ere

denbora zer den.

Gure ama gogoratzen

dudan

bakoitzean

non dagoen galdetzen

dudan bakoitzean

oroimenaren gordelekuren batean

oroitzak gordetzen ari naizela

ohartzen naiz...

Denborarekin zer ikusirik?

Iraganean hitz egin dudan

lehengo aldia da.

Oraina besterik ez

ezagutzen nuen garaia

bukatu da.

Denborak iragana irakatsi nahian?

Jarraitzen dut

gure magma ama izan zenaren

bilakaeran.

Atzo

haize harroputz batek

izaera heldugabearen harropuzkerian

erran zidan: "zuk ama deitzen duzun hori

bere lekura itzuli da

lurraren sabelera.

Jakin ezazu

hain gaztea ez dela

zuk ama esanten doizuna

amona bihurtua dela".

Indar berri baten erakarpenak

lokarri antzeko batetik

lurraren sabelera erakarri dit.

Nire malenkonia ahal da?

malenkonia, nondik atera dut hitz hori?

denborak irakatsi ahal dit?

Ama magmaren sabel beroan nago

ahuleziak alde eginda

adi

sorleku santutegian...

"Ama batek badaki

bere kumeek libertaterako prest daudenean

geroari bide ematen.

Lasaitu zaitetz!

betirako naiz hemen
eta tarteka emango dizuet seinale.
Joan zaitez
geroa eraikitzearen lekuko izatera.
Gorde itzazu benetako oroimena
oraina
iragana eta geroa
osotasunaren izenean
batzen diren altxorreak".

Geroztik
aurrera eta atzera
beldurrik gabe
begiratu dezaket.
nire baitan gorde baitut
ezeztatu duten
benetako sekretua.

Amatasuna dela
iraunkortasunean izateko
denborak
behar duena.

Amatasuna

Ama

Jaiotza

Denboraren sortzailea?

Amatasuna

Ama

Osotasunaren sabela

Eratuz doana

Erditze etengabea

Doahin emankorrean

Amatasuna

Ama

Barik

Ez gara

Ez zara

Ez da...

IZATEKO

Ogiak izateko legamia behar du
Gure legamia amaren sabela da.

KOLOREAK

Goiko koloredun arkura
heldu naiz, kolore guztien
aurkezpena, ohorezko gonbitatu
gisa.

Euriteak atertzerakoan
zabaldu dena.

Kolorezko txinpartetatik
beherantz begira

Ama-lurraren paisai zahar elkorra
desagertu da.

bere orde
erraldotasuna
nagusi da.

Alde batera eta bestera
makurtzen den erraldotasuna
bizidunen higidura
agerian uste duena.

Kolore guztien begi ninietan
mugagabetasunak lekua hartu du.
Hedatzen doan ulertu ezina den mirarian
bukatu da gure Ama-Lurraren bakardadea.

AMAIGABEA

Nolako oreka

halako edertasun

amaigabea

amaigabea...Edertasun buka ezina

buka ezinean

buka ezina...

UNE JASOTZAILEA

Unea: denboran, betierekoaren tartekatzea.
Era horretak, una: "geratzen, igarotzen da",
"geratzen da, igarotzen".
Soren Kierkegaard.

Nik ez dut historia jasoko
horretarako badira adituak.

Nik, uneak gordeko ditut.

Historiari axola ez zaienak.

Hasieratik uneak.

Historia eta denboraren
kume bihurriak
menderatu ezinak
ahaztu naiaren kontrolpetik
ihes egiten dutenak.

Eskergarriak.

Zer izango litzateke bestela
historia
denbora
lurra
abere bakoitza
gizaki bakoitza

une berezien gabe?

Inkontziente kolektiboaren
altxorra dira.

Atzetik aurrera eta aurretik atzera
bidaiatzeko modu bakarra.

Ez ahal duzue mendien barrenak
hustu edo lehertzen dituztenean
harrien samina ukitu?

Edo

Konkistatzaileen
gerra santuko
errugabe menderatuen
odola dastatu
eta samina bizi?
Nik bai.

Osotasun onetan
murgildurik baikara...

Ama lurraren oroimenean.

Gurekin jarraitzen duten
izar
eguzki
eta ilargian.

Ortziaren zabaltasunean.

Atzean geratu diren uneak
joaten direnean
betirako da.

Batzuk
Udaren ugarian
ikusi ez dugun
hosto bakarraren
antzera.

Beste batzuk
ostera
erantsi ezineko
aztarna sakonekin
itsasten dira
burmuinean.

Burmuinak bihotzarekin duen lotura ezin uka.
Agian bihotzak hitz egiten dio burmuinari
bere poza eta zaurien berri emanez?

Hala bada
bihotzaren patua
argi itzalezko
Jostorratzarekin
adabatua
bizitzea ahal da?

Burmuinak
ahazte bidea
hartzen duenean
bihotzak eusten dio
ordezkoa.

Bihotzak
ama baten bihotzaren antzera
uneak
eta
besterik ez
gordetzen baititu.

OSOTASUNAREN SEME-ALABAK

Ama lurra dut

kosmosa aita

osotasun zabalean.

ASKATASUNAREN MAITALEA

Dekonstruzioa: Suntsitzerakoak forma eta hondoa galtzen dituzu;
dekonstrozioarekin,
forma berriak lortzen dituzu, hondoa aztertu ondoren.

Jaques Derrida

Maitemindu naiz
betiko ikasle
izango naizen
askatasunaz.

Benetako
dimentsioa
berreskuratu
nahian nabil.

Historiaren igaroan
zokoren batean
baztertu zutena.

Aurrerantzean
bere baitan
biziko ditut
linealak
ez diren
bizitzaren
gora berak.

Maitatzeko ere berriak
asmatzen.

Maitasuna eraberritzen...

Barne askatasunean
inoiz ezeztatu ezin digutena...

KOBAZULOTAN

gure etxeko sukaldearen

suari begira galdu da

nire gogoa.

Gordeta zituen oroitzak

itzuli dira

pixkana.

Suak sorgindutako loak hartua

haitzuloko garaietara

itzulera.

Haitzuloa amaren amatasunaren

sabela antzekoa

baita.

Gela labain otzaren zulo iluna

aspaldi urtu baitzuen

suak.

Horrela uxatu zituen gure Ama sakratuak

Iluntasunaren mamuak.

Itsumeneko irteera.

Guztiok

joan zirenak eta gaudenak

bat eginda

Hain gaude goxo hemen barruan!

IRUDIAK

Kobazulotan

arbasoen aztarnak

harri jantzietan.

HAITZULOTATIK, ETXERA.

Haitzuloen sustrai mitiko primitiboenak, bizirik diraute, «Etxean».

Sendi zabaleko etxeak,
ezaugarri ekonomikoa; soziala, eta erlijiosoa,
zuen erakundean...

Arbasoekin elkartasuna gordetzen zuena,
eta sepulturak etxeko baratzean egiten zituenak.

Félix Placer Ugarte.

Haitzulotako sendi ugariak

ikusi ditut

sukaldeko sugarretan

dantzan.

Dantzan

eta agurrean

lehen bezala

aholkuren bat

eman nahian.

Haitzulotako tinta

daramat oraindik eskuetan

eta haiek

haitzulotako arbasoak

bururatu didate

irudi bat
eguzki lorearena.

Sukaldearen goxotasuna
haitzuloaren oroimena.

Hemen gaude guztiak
gaudenak
eta joandakoak
batera
gure senaren arima
zabalduz lau haizetara.

Izan ginenak gara
izango garenak.
Betikotasunaren Misterioan
lekukoak.

MALKOA

Malkoa begian.

Azaldu da
zer egin
ez dakiela

Ura gatzeta eta sendimendua.

Betazalak
ibili ditu
barru-barrutik

Betileetan geratu da.

Dardarka
banan-bana
bustia zabaltzen

Bere izaeraren zergatia ez dakiela.

Esku arrotz batek
errotik
garbitu du

Sendimendu bat erori da.

HITZ-GORDEAK

Sendimenduen

Unibertsoan

daude

gordetako hitzak.

ORAIN

Orain badakit.

Gizakia dela
gizakiaren
naturaren
etzai nagusiena.

Ikasi dut.

Maitasun ezaren
ondorio latzak.
Egiten dituzten
sarrazkietan.

Hasierako galdera.

Polisetik
Metropolira
Feudalismoetik
Burgesiara
Zintzetatik

Teknologi berrietara

Bizirik dirauela.

Egia biribila da.
Historian zehar
orain bai

historia itza aipatzen dudala
hasiera-aurreko galderari
erantzu ez diotelako.

Zer jakin beharrea gaude?...

Hain da gozoa Maitasuna!

INOZENTEENTZAT POEMA BAT

Lehiakortasuna mindu duten bakoitzean
zulo bat
irekitzen da zeru-sabaian.

Bihotz irekiek isuritako samin-malko bakoitzean
zauri bat
Ama lurraren sabelean.

Errugabetasunei zigortu dieten bakoitzean
zain bat
odolustu da ibaian.

Inozentzia saldu duten bakoitzean
zanga bat
arrailtzen da justiziaren ahosabaian.

«Kronos»ari aurea hartuz;aurretik atzera,atzetik aurrera,
poemaz ziprztindutako paperean,
itxaropena ezkutatu da, lerro tartean... Maitasunaren bidean...

AURKIBIDEA

HITZAURREA

ZERO

GATOZ?

MAGMA

NAGOELA

LURRINA

BABESA

AZALA

AZTARNA

AZAL GAHINEAN

HARRIDURA

URA

IZARRAK

HAIZEA

ARRANOA

DENBORAREN OROIMENA

IZATEKO

KOLOREAK

AMAIGABEA

UNE JASOTZAILEA

OSOTASUNAREN SEME-ALABAK

ASKATASUNAREN MAITALEA

KOBAZULOTAN

IRUDIAK

HAITZULOTATIK, ETXERA.

MALKOA

HITZ-GORDEAK

ORAIN

INOZENTEENTZAT POEMA BAT